Duela gutxi, Eusko Jaurlaritzako eta Donostiako Udaleko arduradun instituzionalek publikoki iragarri dute lurzati horretan agian zuzkidura-apartamentuak eraikiko direla. Sustapen horretako apartamentu-kopuruari dagokionez, 200 eta 400 artean aipatu diren arren, orain arte ez da jendaurrean aurkeztu proiektu zehatzik aurkeztu, ez eta hiri- edo gizarte-inpaktuari buruzko azterlanik, ezta auzokideekin parte hartzeko prozesurik ere.

Recientemente, responsables institucionales del Gobierno Vasco y del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián han realizado anuncios públicos relativos a la posible construcción en dicha parcela de una promoción de gran tamaño de apartamentos dotacionales, con cifras que han oscilado entre 200 y 400 unidades, sin que hasta la fecha se haya presentado públicamente un proyecto definido, un estudio de impacto urbano o social, ni un proceso de participación con el vecindario del barrio.

Gainera, kontuan hartu behar da, auzo horretan zuzkidura-etxebizitza berriak onetsi berri direnean egin direla adierazpen horiek. Onetsitako zuzkidura-etxebizitza horiek oposizio zabala sortu zuten auzotarren artean, aurreikusitako eraikinek (inguruko batezbestekoa baino askoz altuagoak diren dorreak) hiri-paisaia eta lehendik dagoen eraikuntza-eskala nabarmen aldatzea ekarriko bailukete ingurune horretan.

Estos anuncios se producen además en un contexto de reciente aprobación de nuevas viviendas dotacionales en el mismo barrio, que generaron una amplia oposición vecinal, así como en un entorno donde las edificaciones previstas (en forma de torres de altura muy superior a la media del entorno) supondrían una alteración sustancial del paisaje urbano y de la escala edificatoria existente.

Era berean, gogorarazi behar da lurzati hori auzo-ekipamenduetara bideratuta zegoela, bizilagun askok, beren etxebizitzak erosi zituztenean, bertan auzo-ekipamenduak egitea

Asimismo, debe recordarse que la citada parcela estaba destinada a equipamientos de barrio, expectativa con la que numerosos vecinos y vecinas adquirieron sus viviendas, al

espero zutela, lurzati hori eremua modu orekatuan garatzeko beharrezkoak diren zuzkiduretara eta zerbitzuetara bideratuko zela uste baitzuten.

entender que dicho suelo se destinaría a dotaciones y servicios necesarios para el desarrollo equilibrado del ámbito.

Horregatik guztiagatik, ezinbestekoa da Donostiako Udalak argi eta garbi definitzea haren jarrera, bai eta proiektuaren irismena zein hiri- eta gizarte-justifikazioa ere, eta, horrez gain, ukitutako auzotarren informazioa eta parte-hartze eraginkorra bermatzea.

Por todo ello, resulta imprescindible que el Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián defina con claridad su posición, el alcance del proyecto y su justificación urbana y social, garantizando además la información y participación efectiva del vecindario afectado.

Hori dela eta, hauxe da gure

Por estas razones presentamos la siguiente

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio argi eta garbi zein jendaurrean zehatz dezala zenbat zuzkidura-apartamentu sustatu nahi diren Loiolako Erriberako lurzatian (gaur egun, ekipamenduetarako hirigintza-kalifikazioa du).

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a que defina de forma clara y pública el número de apartamentos dotacionales que se pretende promover en la parcela de Riberas de Loiola actualmente destinada a equipamiento.

2. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio zehatz dezala lurzati horretan zer ekipamendu publiko ezartzea aurreikusten duen, eta ekipamendu horien tipologia, azalera eta aurreikusitako egutegia ere zehatz ditzala, lurzoruaren hirigintza-kalifikazioarekin eta auzoaren beharrekin bat datozenak.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a concretar qué equipamientos públicos se prevé implantar en dicha parcela, especificando su tipología, superficie y calendario estimado, en coherencia con la calificación urbanística del suelo y las necesidades del barrio.

3. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio azal dezala zer hirigintza-, gizarte- eta lurralde-arrazoi direla-eta den Loiolako Erribera kokaleku egokiena, Euskadin aurreikusitako zuzkidura-apartamentuen sustapen handienetako bat bertan garatzeko.

3. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a que explique las razones urbanísticas, sociales y territoriales por las que consideran que Riberas de Loiola es la ubicación más adecuada para desarrollar una de las mayores promociones de apartamentos dotacionales previstas en el País Vasco.

4. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio jakinaraz dezala zergatik ez den sustatu orain arte elkarrizketa- eta partaidetza-prozesu bata auzokideekin, eremuaren etorkizuna eta lurzatiaren hiri-garapenaren eredua adosteko.

4. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a que informe de los motivos por los que no se ha promovido hasta la fecha un proceso de diálogo y participación con el vecindario del barrio para consensuar el futuro del ámbito y el modelo de desarrollo urbano de la parcela.

5. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio zehatz dezala lurzoruaren erabilgarritasunaren eta obren hasieraren egutegi errealista bat, kontuan hartuta lurzatia gaur egun ADIFek okupatzen duela abiadura handiko trenaren obretarako, eta obra horren amaierak ez duela data publikorik zehaztuta.

5. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a que detalle el calendario realista de disponibilidad del suelo y de inicio de las obras, teniendo en cuenta que la parcela se encuentra actualmente ocupada por ADIF para las obras del Tren de Alta Velocidad, cuya finalización no cuenta con fecha pública definida.

6. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio aurkez dezala Loiolako Erriberan 200 eta 400 zuzkidura-apartamentu gehiago ezartzeak hirian, gizartean eta zerbitzu publikoetan izango lukeen eraginaren ebaluazioa, kontuan hartuta auzo horretan etxebizitza babestu asko daudela dagoeneko.

6. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a que presente una evaluación del impacto urbano, social y de servicios públicos que supondría la implantación de entre 200 y 400 apartamentos dotacionales adicionales en Riberas de Loiola, en un barrio ya caracterizado por una elevada concentración de vivienda protegida.

7. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio azal dezala dimentsio horietako zuzkidura-konplexu bat kudeatzeak eta mantentzeak zer nolako bideragarritasuna duen; etxebizitzetan biziko diren erabiltzaileen txandakatzeari, erabiltzaile horien profilei, etxebizitza horiei lotutako zerbitzuen hornidurari eta beharrezkoak diren udal-baliabideei buruzko aurreikuspenak ere zehaztuz.

7. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a que exponga la viabilidad de gestión y mantenimiento de un complejo dotacional de tales dimensiones, incluyendo previsiones sobre rotación residencial, perfiles de usuarios, dotación de servicios asociados y recursos municipales necesarios.

Donostia, 2026ko otsailaren 20a

Borja Corominas Fisas

En San Sebastián, a 20 de Febrero de 2026

Borja Corominas Fisas

Alderdi Popularraren udal taldearen bozeramailea".

Portavoz del Grupo Municipal del Partido Popular".

Eztabaida hasita, Ane Oyarbide Ochoa andreak, Borja Corominas Fisas jaunak, Arantza Gonzalez Garcia andreak, Ricardo Burutaran Ferre jaunak eta Nekane Arzallus Iturriza andreak, parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Ane Oyarbide Ochoa, D. Borja Corominas Fisas, D.ª Arantza González García, D. Ricardo Burutaran Ferré y D.ª Nekane Arzallus Iturriza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**EH BILDU TALDEAK 6. GAIARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA PRESENTADA POR EL GRUPO EH BILDU AL ASUNTO N.º 10:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 - EH BILDU.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 - (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 - EH BILDU.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 - (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**EAJ/PNV TALDEAK 6. GAIARI AURKEZTUTAKO 1. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 1 PRESENTADA POR EL GRUPO EAJ/PNV AL ASUNTO N.º 6:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 - (8) EAJ/PNV, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 - (8) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 - (8) EAJ/PNV, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 - (8) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**EAJ/PNV TALDEAK 6. GAIARI AURKEZTUTAKO 2. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 2 PRESENTADA POR EL GRUPO EAJ/PNV AL ASUNTO N.º 6:**

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 11 - (8) EAJ/PNV, (3) PP.
AURKAKO BOTOAK: 15 - (8) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.
ABSTENTZIOAK: 0.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 11 - (8) EAJ/PNV, (3) PP.
VOTOS EN CONTRA: 15 - (8) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.
ABSTENCIONES: 0.

HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:

6. GAIAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DEL ASUNTO N.º 6:

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 15 - (8) EH BILDU, (5) PSE- EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 11 - (8) EAJ/PNV, (3) PP.
ABSTENTZIOAK: 0

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 15 - (8) EH BILDU, (5) PSE- EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 11 - (8) EAJ/PNV, (3) PP.
ABSTENCIONES: 0

6. GAIAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DEL ASUNTO N.º 6:

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 15 - (8) EH BILDU, (5) PSE- EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 11 - (8) EAJ/PNV, (3) PP.
ABSTENTZIOAK: 0

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 15 - (8) EH BILDU, (5) PSE- EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 11 - (8) EAJ/PNV, (3) PP.
ABSTENCIONES: 0

6. GAIAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DEL ASUNTO N.º 6:

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA .**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

**8. KONTROL MOZIOAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 8:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 - (8) EAJ/PNV, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 - (8) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 0**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 - (8) EAJ/PNV, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 - (8) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 0**

* * * *

Bertaratutako guztien adostasunarekin, Alkate-Udalburuak 1. kontrol mozioa eta 7. kontrol mozioa batera jorratzea erabaki du.

Con la conformidad de todos los y las presentes, el Alcalde-Presidente decide tratar de forma conjunta la moción de control n. º 1 y la moción de control n.º 7.

* * * *

------------------

**II.2**

**KONTROL MOZIOAK**

**II.2**

**MOCIONES DE CONTROL**

**II.2.1. Kontrol Mozioa, EH Bildu Taldeak aurkeztua, atxilotuen jatorriagatiko datuak ematearen inguruan.**

**II.2.1. Moción de Control, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre la cesión de datos del origen de los detenidos.**

“Izar Hernando Ibero EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2026ko

“Izar Hernando Ibero, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN, para su tratamiento en

otsailaren 16ean Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Segurtasuna eta segurtasun pertzepzioa herri-erronka dira ezbairik gabe, estrategia partekatuak ezinbesteko dituztenak; auzi hauek, gainera, konplexuak eta delikatuak izanagatik, sakontasuna eta zorroztasuna behar dituzte, eta urrats bakoitza tentuz eta gehiengoen babesarekin ematea. Azken hamarkadetan, segurtasunari dagokion politika informatiboarekiko kontsentsu zabala izan da gure herrian.

Atxilotuen eta identifikatuen jatorria publiko egiteak aipatu kontsentsu politiko eta soziala hausten du. Aditu askoren arabera, jatorria jakiteak gutxi laguntzen du delitu baten zergatia azaltzen, bestelako faktore sozioekonomiko batzuen ondoan. Aldiz, delitua egin duenaren jatorria publiko egiteak pertzepzio publikoan modu negatiboan eragin dezakeela diote kolektibo migratuekin lanean diharduten elkarteek, jokaera konkretuetatik kolektibo osoak susmagarri gisa hautematea ekar baitezake. Bestalde, arrisku horiek hartzea justifikatu lezakeen segurtasun-arrazoi objektiborik ez dago, atxilotuen jatorria publiko egiteak ez baitu donostiarren segurtasunean hobekuntzarik ekarriko. Horregatik guztiagatik, azken hamarkadetako kontsentsura itzuli behar dugu ahalik eta azkarren.

Hori horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

el Pleno, como consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Servicios a las Personas el pasado 16 de febrero de 2026.

JUSTIFICACIÓN

La seguridad y la percepción de seguridad son sin duda retos de país que requieren estrategias compartidas. Además, estas cuestiones, por su complejidad y delicadeza, requieren de profundidad y de rigor, y exigen también dar cada paso con cautela y con apoyo de la mayoría. En las últimas décadas, en nuestro país ha habido un amplio consenso en cuanto a la política informativa en materia de seguridad.

Hacer pública la procedencia de las personas detenidas e identificadas rompe con dicho consenso político y social. Según muchos expertos, conocer el origen apenas contribuye a explicar el motivo de un delito, frente a otros factores socio-económicos. Por el contrario, las asociaciones que trabajan con colectivos de personas migrantes señalan que hacer público el origen de quien comete el delito puede influir negativamente en la percepción pública, ya que puede suponer la percepción de todo el colectivo como sospechoso de conductas concretas. Por otra parte, no existen razones objetivas de seguridad que puedan justificar la asunción de estos riesgos, ya que la publicidad de la procedencia de las personas detenidas no supone una mejora en la seguridad de la ciudadanía donostiarra. Por ello, creemos que debemos volver lo antes posible al consenso de las últimas décadas.

Por todo ello, la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari ez ditzan atxilotuen jatorriagatiko datuak publiko egin.

Donostian, 2026ko otsailaren 20an

Izar Hernando Ibero
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a no hacer públicos los datos relativos al origen de las personas detenidas.

San Sebastián, 20 de febrero de 2026

Izar Hernando Ibero
concejala del grupo municipal EH Bildu".

**II.2.7. Kontrol Mozioa, PP Taldeak aurkeztua, atxilotuen identitateari buruzkoa.**

"Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) atxilotuen identitateaz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Herritarren segurtasuna da herritarren kezka nagusietako bat, bai eta tokiko administrazio publikoen funtsezko jarduera-eremuetako bat ere. Alde horretatik, Donostiako Udaltzaingoak funtsezko zeregina du delituari aurrea hartzen eta ordena publikoari eta hiriko bizikidetzari eusten.

Herritarren segurtasunaren arloko politika publiko eraginkorrak diseinatzeko, ezinbestekoa da Udaltzaingoak egindako polizia-jarduerari buruzko informazio objektibo, zorrotz eta eguneratua izatea; Udaltzaingoaren eginkizunak betetzekoan egindako atxiloketei buruzkoa,

**II.2.7. Moción de Control, presentada por el Grupo PP, sobre la identidad de los detenidos.**

"Borja Corominas Fisas, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 al amparo del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la Interpelación presentada en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre la identidad de los detenidos.

JUSTIFICACIÓN

La seguridad ciudadana constituye una de las principales preocupaciones de la ciudadanía y un ámbito esencial de actuación de las administraciones públicas locales. En este marco, la Guardia Municipal de Donostia-San Sebastián desempeña un papel fundamental en la prevención del delito, el mantenimiento del orden público y la convivencia en la ciudad.

Para diseñar políticas públicas eficaces en materia de seguridad ciudadana resulta imprescindible disponer de información objetiva, rigurosa y actualizada sobre la actividad policial desarrollada por la Guardia Municipal, especialmente en lo relativo a las

bereziki.

detenciones practicadas en el ejercicio de sus funciones.

Azken urteotan, polizia-kidego batzuk –Ertzaintza eta Mossos d'Esquadra, adibidez– beren polizia-jardunaren ondorioz atxilotutako pertsonei buruzko datu estatistiko agregatuak argitaratzen hasi dira aldizka: atxiloketa kopuru osoa, delituen tipologia eta atxilotutako pertsonen jatorria, konparazio baterako. Jardunbide hori bat dator gardentasun instituzional eta kontu emate printzipioekin, datu pertsonalen babesaren arloan indarrean den araudia urratu gabe.

En los últimos años, distintos cuerpos policiales, como la Ertzaintza o los Mossos d'Esquadra, han comenzado a publicar de manera periódica datos estadísticos agregados relativos a las personas detenidas como consecuencia de su actuación policial, incluyendo variables como el número total de detenciones, la tipología de los delitos y el origen o procedencia de las personas detenidas. Esta práctica se ajusta a los principios de transparencia institucional y rendición de cuentas, sin vulnerar la normativa vigente en materia de protección de datos personales.

Era horretako informazioak –anonimizatuta, betiere, eta helburu estatistikoetarako bestetarako ez– aukera ematen du:

- Udaltzaingoaren jarduera-eremuko delitu-errealitatea zehaztasun handiagoz ezagutzeko.
- Polizia-kidego horrek detektatutako delituen bilakaera eta tipologia aztertzeko.
- Udalaren segurtasun-dispositiboen eta -politiken eraginkortasuna ebaluatzeko.
- Hiriaren gizarte-errealitatera hobeto egokitzen diren prebentzio-neurriak eta jarduketak diseinatzeko.
- Delituak desagerrarazten eta herritarren segurtasun falta pertzepzioa murrizten laguntzeko.

El acceso a este tipo de información, siempre presentada de forma anonimizada y con fines exclusivamente estadísticos, permite:

- Conocer con mayor precisión la realidad delictiva en el ámbito de actuación de la Guardia Municipal.
- Analizar la evolución y tipología de los delitos detectados por dicho cuerpo policial.
- Evaluar la eficacia de los dispositivos y políticas municipales de seguridad.
- Diseñar medidas preventivas y actuaciones más ajustadas a la realidad social de la ciudad.
- Contribuir a la erradicación de los delitos y a la reducción de la percepción de inseguridad ciudadana.

Era berean, datu horiek argitaratzeak mesede egiten dio eztabaida publiko informatuagoa eta

Asimismo, la publicación de estos datos favorece un debate público más informado y

gertaera objektiboetan oinarritutakoa izateari, eta saihestu egiten ditu gizarte-alarma edo estigmatizazioa eragin dezaketen interpretazio okerrak, zurrumurruak edo kontrastatu gabeko informazioak.

Hori dela eta, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Gobernu Taldeari eskatzen dio argitaratzeko, egokitzat jotzen duen aldizkakotasunarekin, Donostiako Udaltzaingoak bere eskumenen barruan egindako atxiloketei buruzko informazio estatistiko agregatua.

2. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Gobernu Taldeari eskatzen dio alderdi hauek sartzeko argitaratutako informazio horretan: Udaltzaingoak guztira atxilotutako pertsona kopurua, atxiloketa horiek eragin dituzten delituen tipologia eta atxilotutako pertsonen jatorria, modu agregatuan aurkeztuta (jatorrizko herrialdearen edo eremu geografikoaren arabera); anonimotasuna bermatuta, beti, eta datu pertsonalak babesteko araudia zorrotz beteta.

3. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Gobernu Taldeari eskatzen dio bermatzeko datu horiek argitaratzeak izango duen helburua izatea:

- Udalaren gardentasuna eta kontu-ematea indartzea;
- Udaltzaingoak herritarren segurtasunean egiten duen jardueraren azterketa eta ebaluazioa erraztea, eta

basado en hechos objetivos, evitando interpretaciones erróneas, rumores o informaciones no contrastadas que puedan generar alarma social o estigmatización.

Por estas razones presentamos la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1. El pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a hacer pública, con la periodicidad que estime más adecuada, información estadística agregada relativa a las detenciones practicadas por la Guardia Municipal de Donostia-San Sebastián, en el ámbito de sus competencias.

2. El pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Equipo de gobierno a que la información publicada incluya: El número total de personas detenidas por la Guardia Municipal; la tipología de los delitos por los que se han producido dichas detenciones y el origen o procedencia de las personas detenidas, presentado de forma agregada (por país de origen o áreas geográficas), garantizando en todo momento el anonimato y el estricto cumplimiento de la normativa de protección de datos personales.

3. El pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Equipo de gobierno a garantizar que la publicación de estos datos tenga como finalidad:

- Reforzar la transparencia y la rendición de cuentas del Ayuntamiento.
- Facilitar el análisis y la evaluación de la actuación de la Guardia Municipal en materia de seguridad ciudadana.

- hirian delituak egitea prebenitu eta desagerrarazteko eta bizikidetza hobetzeko politika eraginkorrak diseinatzen laguntzea.

4. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Gobernu Taldeari eskatzen dio Osoko Bilkura hau osatzen duten gainerako alderdi politikoei jakinarazteko zer argitalpen-eredu eta zer euskarri aukeratzen duen hizpide dugun informazio hori emateko, eta noiz zabalduko duen informazio hori aurreneko aldiz.

Donostian, 2026ko otsailaren 20an.

Borja Corominas Fisas
Alderdi Popularraren udal taldearen bozeramailea".

- Contribuir al diseño de políticas eficaces para la prevención y erradicación de los delitos y la mejora de la convivencia en la ciudad.

4. El pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a informar al resto de formaciones políticas que conforman este Pleno del modelo de publicación elegido, del soporte utilizado y de los plazos previstos para la primera difusión de esta información.

En San Sebastián, a 20 de febrero de 2026

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal del Partido Popular".

Eztabaida hasita, Izar Hernando Ibero andreak, Borja Corominas Fisas jaunak, Victor Lasa Briz jaunak, Ane Oyarbide Ochoa andreak eta Martin Ibabe Eceiza jaunak, parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Izar Hernando Ibero, D. Borja Corominas Fisas, D. Victor Lasa Briz, D.ª Ane Oyarbide Ochoa y D. Martin Ibabe Eceiza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**1. KONTROL MOZIOAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 1:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 15 – (8) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 11- (8) EAJ/PNV, (3) PP.**

**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 15 – (8) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 11- (8) EAJ/PNV, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**7. KONTROL MOZIOAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 7:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 22 - (8) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 22 - (8) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 0.**

* * * *

Jarraian, deialdian gaiak aztertzeko aurreikusi zen hurrenkerari ekin diote berriro.

A continuación, se retoma el orden de tratamiento de los asuntos previsto en la convocatoria.

* * * *

**II.2.2. Kontrol Mozioa, EH Bildu Taldeak aurkeztua, 27 poligonoko Torrua Zahar AU MA 02 eremuko 16 partzela dela eta.**

“Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2026ko otsailaren 16ean Lurralde Garapen eta Antolamendurako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Orain gutxi 27 Industrialdeko Jabeen eta Erabiltzaileen Elkartearekin egoteko aukera izan dugu eta industrialde bera bisitatzeko aukera.

**II.2.2. Moción de Control, presentada por el Grupo EH Bildu, en relación con la parcela 16 del Polígono 27 AU MA 02 Torrua Zahar.**

“Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en el Pleno. La presente moción de control es consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio el pasado 16 de febrero de 2026.

JUSTIFICACIÓN

Recientemente hemos tenido la oportunidad de reunirnos con la Asociación de Propietarios y Usuarios del Polígono 27, así como de visitar el citado polígono.

Bertan egonik, arreta handia ematen du Torrua Zahar AU MA 02 eremuko 16 partzelak egun duen egoera. Partzela huts hau zabortegi bat bilakatu da.

Estando allí, llama poderosamente la atención el estado actual de la parcela 16 del AU MA 02 Torrua Zahar. Esta parcela vacía se ha convertido en un vertedero, pero no es un problema nuevo.

Partzela huts honetan ematen den arazoa, ez da berria. Urteak dira 27 Industrialdeko Jabeen eta Erabiltzaileen Elkarteak berak partzela garbitzea eskatzen duela, baina baita partzelari erabilera zehatz bat ematea ere.

La propia Asociación de Propietarios y Usuarios del Polígono 27 lleva años solicitando que se limpie la parcela, así como que se le dé un uso concreto. Desde EH Bildu también hemos denunciado el estado de la parcela en más de una ocasión.

EH Bildutik ere partzela honen egoera salatu izan dugu, hain zuzen ere, 2024eko urtarrilean, partzela honetan EH Bildutik plan berezi bat egitea eskatu genuen mozio baten bidez, bestelako erabilera bat emateko. Baina Udal Gobernuak mozio horren aurka bozkatu zuen.

En concreto, en enero de 2024, solicitamos, a través de una moción, la elaboración de un plan especial que permitiera dar un uso diferente a esta parcela. Pero el Gobierno municipal votó en contra de dicha moción.

Bada 2 urte beranduago, partzela horren egoera okertu egin da. Zaborrez bete da eta zabortegi ilegala bihurtu da. Ugariak dira hona gerturatzen direnak haien hondakinak botatzeko. Bertara gerturatzea baino ez da egin behar, egun dagoen egoera kezkagarria ikusteko. Hondakin-mota ugari ikus dezakegu bertan, usaina, arratoiak...

Dos años después, la situación de esta parcela ha empeorado. Se ha llenado de basura y se ha convertido en un vertedero ilegal. Son muchas las personas que se acercan allí para depositar sus residuos. No hay más que acercarse al lugar para ver la preocupante situación en la que se encuentra en la actualidad: se pueden ver numerosos tipos de residuos, malos olores, ratas…

Jada, osasun-arazo bihurtu da ere inguruko lantokientzat eta zerbitzuentzat.

Tal es la situación que se ha convertido en un problema de salud para los centros de trabajo y servicios de la zona.

Bai bertako enpresek eta bai 27 Industrialdeko Jabeen eta Erabiltzaileen Elkarteak partzela hori garbitzeko eskaera egin izan du Udalean maiz, baina orain arte, ez du inongo erantzunik jaso.

La Asociación de Propietarios y Usuarios del Polígono 27 ha solicitado en numerosas ocasiones ante el Ayuntamiento que proceda a la limpieza de dicha parcela, sin que hasta la fecha haya recibido respuesta alguna.

Egoera ikusirik, Arartekora jotzeko urratsa eman zuten. Eta horren ondorioz, Arartekoak 27

Ante esta situación, decidieron acudir al Ararteko, y, como consecuencia de ello, esta

poligonoko Torrua Zahar AU MA 02 eremuko 16 partzelari buruzko informazioa eskatu dio Donostiako Udalari.

institución ha solicitado al Ayuntamiento de San Sebastián información sobre la parcela 16 del área AU MA 02 Torrua Zahar del Polígono 27.

Honen guztiaren aurrean, arazoaren berri eman genion Udal Gobernuari. Udal Gobernuak, haren zinegotzi arduradunaren bidez jakinarazi zigun, aipatutako partzela lehenbailehen garbituko zela eta hesitu egingo zela.

Así las cosas, trasladamos el problema al Gobierno municipal, quien, a través de su concejalía responsable, nos comunicó que se iba a proceder cuanto antes a la limpieza y vallado de la citada parcela.

Hesiari dagokionez, inguru guztia ondo itxia dagoela ziurtatzea garrantzitsua deritzogu, azken urteetan partzela honek izan duen bilakaera ikusirik.

En cuanto al vallado, consideramos importante asegurar que todo el perímetro esté bien cerrado, dada la evolución de esta parcela en los últimos años.

Hala ere, egoeraren larritasuna ikusirik, partzelak egoera berdinean jarraitzen du, zaborrez betea.

Sin embargo, a pesar de la gravedad de la situación, la parcela sigue en la misma situación, llena de basura.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

Por todo ello, la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari, 27 industrialdeko Torrua Zahar AU MA 02 eremuko 16 partzela lehenbailehen garbitu dezala eta behar diren neurriak har ditzala eremua ixteko eta berriro bertan hondakinik botako ez dela ziurtatzeko, partzelaren erabilera zehaztu eta onartu arte.

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a que proceda cuanto antes a la limpieza de la parcela 16 del área AU MA 02 Torrua Zahar del Polígono 27 y a que tome las medidas necesarias para cerrar la zona y asegurar que no se vuelva a depositar ningún residuo en ella, hasta que se defina y se apruebe el uso que se le va a dar a la citada parcela.

Donostian, 2026ko otsailaren 20an

San Sebastián, 20 de febrero de 2026

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia”.

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
concejal del grupo municipal EH BILDU”.

Eztabaida hasita, Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego andreak, Arantza Gonzalez Garcia andreak,

Tomas Pascua Martin jaunak eta Carlos Garcia Hernandez jaunak, parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Garbiñe Alkiza López de Samaniego, D.ª Arantza González García, D. Tomás Pascua Martín y D. Carlos García Hernández, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**2. KONTROL MOZIOAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 2:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.3. Kontrol Mozioa, EH Bildu Taldeak aurkeztua, 27 poligonoko mugikortasuna dela eta.**

“Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2026ko otsailaren 16ean Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Hirurogeita hamarreko eta laurogeiko hamarkadetan, 27 zenbakiarekin ezagutzen den industrialdearen garapen industrial handia garatzen hasi zen, Martutene auzoan. Industrialdera sarrera ematen duen zubia 1993an ireki zen zirkulaziorako eta honek sarrera zuzen bat eman zion 27 industrialdeari.

**II.2.3. Moción de Control, presentada por el Grupo EH Bildu, relativa a la movilidad en el Polígono 27.**

“Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego, concejala del grupo municipal EH BILDU, presenta, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, la siguiente moción de control para su tratamiento en el Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación presentada ante la Comisión de Espacio Público el pasado 16 de febrero de 2026.

JUSTIFICACIÓN

En los años setenta y ochenta, comenzó, en el barrio de Martutene, el gran desarrollo industrial del polígono industrial conocido con el número 27. El puente de entrada al polígono se abrió al tráfico en 1993, y con ello se dotó al Polígono 27 de un acceso directo.

1997an 27 Industrialdeko Jabeen eta Erabiltzaileen Elkartea eratu zen, egun oraindik ere industrialdearen hobe beharrez lanean diharduena.

En 1997 se constituyó la Asociación de Propietarios y Usuarios del Polígono 27, que sigue trabajando por la mejora del polígono.

Ugariak dira egun industrialdean kokatuak dauden enpresak eta zerbitzuak, korporazio handia, ertainak eta txikiak aurkitu ditzakegu bertan.

Las empresas y servicios que actualmente se ubican en el polígono industrial son muy numerosas, entre las que podemos encontrar grandes, medianas y pequeñas corporaciones.

27. poligonoak, enplegua eta aberastasuna sortzeaz gain, Donostiako eta eskualdeko garapen ekonomikoari laguntzen dio. 27. poligonoa etengabeko bilakaeran dago. Enpresa berriak instalatzen dira urtero, zerbitzuen eskaintza zabalduz.

El Polígono 27, además de generar empleo y riqueza, contribuye al desarrollo económico de San Sebastián y de la comarca. El polígono está en constante evolución. Cada año se instalan en él nuevas empresas, que amplían la oferta de servicios.

27. Poligonoaren indarguneetako bat bere kokapena da, hiriaren baitan. Horren jabe izanik, bertako elkartea industrialdeko azpiegiturak eta zerbitzuak hobetzeko hainbat ekimen egiten ari da, eta horrek bermatuko du industrialdearen hazkundea eta garapena epe luzera.

Otro de los puntos fuertes del Polígono 27 es su ubicación dentro de la ciudad. Conscientes de esta circunstancia, la asociación del polígono está llevando a cabo diversas iniciativas de mejora de las infraestructuras y servicios del polígono industrial, lo que garantizará su crecimiento y desarrollo a largo plazo.

Baina egia da ere, industrialdean dagoen enpresa eta zerbitzu ugaria dela eta, trafiko handia sortzen dela bertan. Auto eta kamioi ugari joaten dira egunero industrialdera lanera, eta horri industrialdean sortu diren bestelako zerbitzuen erabiltzaileen joan-etorria gehitu behar zaie eta azken urteetan kokatu berri diren bi gasolindegiak.

Sin embargo, también es cierto que el hecho de que haya tantas empresas y servicios en el polígono hace que el tráfico en la zona sea denso. El número de coches y camiones que accede diariamente al polígono industrial a trabajar es muy elevado, a lo que hay que añadir la afluencia de personas usuarias de otros servicios que se han creado en el polígono, así como las dos gasolineras que se han abierto en los últimos años.

Erabiltzaile gehienak autoz joaten dira, eta autoen zenbakia ugaria da, bai joan etorrian eta aparkatzeko. Baina badira ere oinez, bizikletaz eta autobusez joaten direnak bertara. Hala ere, egun industrialdeak oinezko eta bizikletentzako

La mayoría de los usuarios y usuarias utilizan el coche para desplazarse, por lo que suele haber gran cantidad de vehículos circulando por la zona y queriendo estacionar en ella. Pero también hay personas que se desplazan

duen espazioa oso txarra da eta ez da batere irisgarria.

Honek guztiak auto-pilaketak sortzeaz gain, arrisku egoerak sortu ditzake bestelako erabiltzaileentzat. Urteak daramatza egoera honetan 27 industrialdea, eta badirudi, egoera okerrera egiten ari dela azken aldian.

Horri buruz galdetu genion Udal Gobernuari eta honen etorkizuneko plana zein zen jakin nahi genuen. Baina Udal Gobernuaren aldetik, ez genuen zehaztapenik, ez konpromiso zehatzik jaso.

Udal Gobernuak onartu zuen eta HAPOaren aurrerakinak horrela jasotzen du, eremua urbanistikoki berrantolatu behar dela eta berrantolaketa horren baitan egongo dela mugikortasunaren antolamendua ere bai.

Hala ere, Udal Gobernuak oztopo gisa jarri zituen bertako eremu batzuk pribatuak direla eta egun duen osaera: enpresa eta eremu pribatuek, hauen sarrerek, espaloi txikiak... edozein antolamendu berri (bidegorria, esaterako) zailtzen dutela eta oso konplexua dela.

Auzian utzi zuen ere enpresak beraiek eta 27 Industrialdeko Jabeen eta Erabiltzaileen Elkartea bera direla lidergoa izan behar dutena. Baina horrek ez luke horrela izan behar, eta hori baieztatzeko, legeak eta planak baino ez dira aztertu behar.

Alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko legea dago, non bertan 32. artikuluan adierazten da, txanda bakoitzean 100 langiletik gora lanean dituzten lantoki pribatuek lantokirako garraio plan

a pie, en bicicleta y en autobús. Sin embargo, actualmente el espacio peatonal y ciclable del polígono es muy malo y poco accesible.

Todo ello, además de generar congestión, puede originar situaciones de riesgo para otros usuarios y usuarias. El Polígono 27 lleva años así y parece que últimamente la situación está empeorando.

Preguntamos sobre ello al Gobierno municipal y también sobre cuál era su plan de futuro. Sin embargo, el Gobierno municipal no ofreció ninguna concreción, ni adoptó compromisos concretos.

El Gobierno municipal reconoció, y así lo recoge el avance del PGOU, la necesidad de una reordenación urbanística del ámbito que incluya la ordenación de la movilidad.

Sin embargo, el Gobierno municipal adujo dificultades como el carácter privado de algunas zonas o la configuración actual de empresas y espacios privados, sus accesos, pequeñas aceras, etc., que dificultan cualquier nueva ordenación, como el bidegorri, y que se trata de una actuación muy compleja.

También señaló que son las propias empresas y la propia Asociación de Propietarios y Usuarios del Polígono 27 quienes deben asumir el liderazgo de esta ordenación. Pero esto no debería ser así, y para contrarrestarlo no hay más que analizar las leyes y los planes existentes.

Por un lado, contamos con la Ley de Sostenibilidad Energética de la Comunidad Autónoma Vasca, cuyo artículo 32 establece que los centros de trabajo donde trabajen más de 100 personas por cada turno deberán

bat izan beharko dute, zeinak barne hartu beharko baititu garraio publikoak edo ordezko ibilgailu pribatuak erabili ahal izateko neurriak.

disponer de un plan de transporte al centro de trabajo, que incluya medidas para posibilitar el uso de transportes públicos o de vehículos alternativos de titularidad privada.

Bestalde, Euskadiko Mugikortasun Jasangarriaren Planean irakur dezakegu, lantokietarako mugikortasun jasangarriko gidalerroak daudela ziurtatuko dela 500 langiletik gorako poligonoetarako, bai mugikortasun-plan propioen bidez, bai hiri-mugikortasun jasangarriko planetan sartuta, eta hori, Udalek finantzatu beharko dutela.

Por otro lado, el Plan de Movilidad Sostenible del País Vasco establece que se asegurará la existencia de directrices de movilidad sostenible para los polígonos de más de 500 trabajadores, bien a través de planes de movilidad propios, bien a través de planes de movilidad urbana sostenible, que deberán ser financiados por los ayuntamientos.

Hortaz, legeak eta planak esku artean, eta nahiz eta 27 industrialdeko mugikortasuna konplexua izan, argi dago neurriak hartzeko garaia dela.

Por tanto, con la ley y el plan en la mano, a pesar de la complejidad que presenta la movilidad del Polígono 27, es evidente que es el momento de tomar medidas.

Bertaratu baino ez baita egin behar, eguneko mugikortasuna “kaotikoa” eta erabat desordenatua dela ikusi ahal izateko.

No hay más que visitar la zona para ver que la movilidad diurna es "caótica" y totalmente desordenada.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

Por todo ello, la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari, 27 industrialdearen mugikortasun-azterketa edo diagnostiko bat egin dezala 2026an zehar, zeina, etorkizunean egin beharreko berrantolaketarako proposamenean kontuan hartuko den.

2. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari , behin mugikortasun-diagnostikoa izanda, 27. industrialdeko Jabeen eta Erabiltzaileen Elkartearekin lankidetzan industrialdearen eraldaketari eta haren mugikortasunari buruzko hausnarketa prozesu bat abiarazi dezala.

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a realizar un estudio o diagnóstico de la movilidad del Polígono 27 a lo largo del año 2026, que será tenido en cuenta en la propuesta de reordenación futura.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal q que, una vez realizado el diagnóstico de movilidad, en colaboración con la Asociación de Propietarios y Usuarios del Polígono 27, se ponga en marcha un proceso de reflexión sobre la transformación

del polígono industrial y su movilidad.

Donostian, 2026ko otsailaren 20an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia."

San Sebastián, 20 de febrero de 2026

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
concejala del grupo municipal EH BILDU".

Eztabaida hasita, Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego andreak, Arantza Gonzalez Garcia andreak, Tomas Pascua Martin jaunak eta Olatz Yarza Garagorri andreak, parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.ª Garbiñe Alkiza López de Samaniego, D.ª Arantza González García, D. Tomás Pascua Martín y D.ª Olatz Yarza Garagorri, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**3. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 3:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**

**BIGARREN BOZKETAN BAZTERTUA, ALKATEAREN KALITATEZKO BOTOAREKIN.**

**ALDEKO BOTOAK: 13 - (8) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 13 - (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**

**RECHAZADA EN SEGUNDA VOTACIÓN POR VOTO DE CALIDAD DEL ALCALDE.**

**VOTOS A FAVOR: 13 - (8) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 13 - (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**3. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 3:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**

**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.4. Kontrol Mozioa, EH Bildu Taldeak aurkeztua, lehen hezkuntzako igeriketa ikastaroei buruzkoa.**

“Itziar Iturri Arrazola, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2026ko otsailaren 15ean Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Martuteneko Arantzazuko Ama ikastolako LH1eko eta LH2ko ikasleek Kirol Patronatuak antolatutako ikastaroetan parte hartu ohi dute. Guraso elkartearen aburuz ikastaro hauek ez dira luxu bat, behar bat baizik: ikasleek oinarrizko uretako trebetasunak eskuratzeko aukera ematen dute, uretan segurtasuna irabazteko eta konfiantza, ongizate fisikoa eta soziala garatzeko. Horregatik, ikastaro hauen gauzatzearekin guztiz konprometiturik daude, baina arazo bat dute ikasleak igerilekura eramateko.

Hilabete honetako Batzordeetan azaldu genuen bezala, Arantzazuko Ama ikastola kiroldegirik ez duen auzo batean dagoenez, ikasleak garraiatzeko autobus pribatu bat kontratatzera behartuta daude; ikastaroen ordutegiek ez dietelako aukerarik ematen jarduera eskola-ordutegiaren barruan egiteko garraio publikoa

**II.2.4. Moción de Control, presentada por el Grupo EH Bildu, relativa a los cursos de natación de Educación Primaria.**

“Itziar Iturri Arrazola, concejala del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, para su tratamiento en el Pleno. Esta moción es consecuencia de la interpelación tratada en la Comisión de Servicios a las Personas el 15 de febrero de 2026.

JUSTIFICACIÓN

Los alumnos y alumnas de EP1 y EP2 de la ikastola Arantzazuko Ama de Martutene suelen participar en los cursos que ofrece el Patronato de Deportes. En opinión de la AMPA, estos cursos no son un lujo, sino una necesidad: permiten que el alumnado adquiera unas habilidades acuáticas básicas para ganar seguridad en el agua y desarrollar la confianza, el bienestar físico y social. Por ello, la asociación está plenamente comprometida con el desarrollo de esta actividad. Sin embargo, tienen problemas para llevar al alumnado a la piscina.

Tal y como explicamos en las comisiones de este mes, la ikastola Arantzazuko Ama se encuentra en un barrio que no dispone de polideportivo, por lo que el centro se ve obligado a contratar un autobús privado para transportar al alumnado, ya que los horarios de los cursos no permite realizar la actividad

erabili ezkero. Horregatik, joan-etorrirako garraio pribatua kontratatzera behartuta daude.

Garraio honek ia 5.000 euro-ko kostua dakarkie ikasturteko eta familia askorentzat gastu hori bere gain hartzea ezinezkoa da, zailtasun ekonomiko handiak baitituzte jada.

Egoera honek desberdintasuna sortzen du: beste auzo batzuetan jarduera hauek eskola ordutegiaren barruan, garraio publikoan edo oinez egin daitezkeen bitartean, Martuteneko ikasleen parte-hartzea arrazoi ekonomikoengatik baldintzatuta dago, jarduera hau hezkuntzarako eta garapen integralerako funtsezkoa izan arren.

Batzordean gaia jorratu genuenean zinegotzi delegatuak azaldu zuen Aldundiak diruz laguntzen dituela garraio kostu hauek, baina jakin dugunez Aldundiak ez du %100ean osatzen garraio kostu hau.

Gauzak horrela, behean sinatzen duen zinegotziak honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du:

- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Arantzazuko Ama ikastolako ikasleen eta kasu berdinean egon daitezkeen Donostiako beste hezkuntza zentroetako ikasleei Gipuzkoako Foru Aldundiak laguntzen ez duen garraio gastua osatzeko konpromisoa har dezala, hiriko ikasle guztiek baldintza berberak izan ditzaten igeriketa ikastaroetan parte hartzeko.

dentro del horario escolar utilizando el transporte público. Por ello, para estos desplazamientos es preciso contratar un medio de transporte privado.

Este servicio tiene un coste de casi 5.000 euros, un gasto inasumible para muchas familias, que ya atraviesan dificultades económicas importantes.

Esta situación genera desigualdad: en otros barrios estas actividades pueden realizarse dentro del horario escolar, haciendo uso del transporte público o desplazándose a pie; sin embargo, la participación del alumnado de Martutene está condicionada por razones económicas, aunque esta actividad sea fundamental para su educación y desarrollo integral.

Cuando se trató el tema en comisión, la concejala delegada explicó que la Diputación subvenciona estos costes de transporte. Sin embargo, según hemos podido saber, la subvención no cubre el 100% del coste de transporte.

Por todo lo expuesto, la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a que se comprometa a complementar el gasto de transporte no subvencionado por la Diputación Foral de Gipuzkoa a los alumnos y alumnas de la ikastola Arantzazuko Ama o de otros centros educativos de San Sebastián que puedan encontrarse en la misma situación, para que todos los alumnos y alumnas de la ciudad gocen de las mismas condiciones para participar en

los cursos de natación.

Donostian, 2026ko otsailaren 19an

Itziar Iturri Arrazola
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

San Sebastián, 19 de febrero de 2026

Itziar Iturri Arrazola
Concejala del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Itziar Iturri Arrazola andreak, Arantza Gonzalez Garcia andreak, Vanessa Velez de Pablos andreak eta Iñaki Gabarain Gaztelumendi jaunak, parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.ª Itziar Iturri Arrazola, D.ª Arantza González García, D.ª Vanessa Vélez de Pablos y D. Iñaki Gabarain Gaztelumendi, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 10 - (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 10 - (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.5. Kontrol Mozioa, Elkarrekin Donostia Taldeak aurkeztua, eremu tentsionatuan alokairu prezioen erreferentzia-indizeak aplikatzeari buruzkoa.**

"Arantza González García Elkarrekin Donostia udal-taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikuluaren babesean, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Arzallus andreari Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean eremu tentsionatuetan alokairu-prezioen erreferentzia-indizeak aplikatzeari buruz aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

**II.2.5. Moción de Control, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, sobre la aplicación de los índices de referencia de precios de alquiler en zona tensionada.**

"Arantza González García, concejala del grupo municipal Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL consecuencia de interpelación a la concejala delegada de Planificación Urbanística y Vivienda, Sra. Arzallus, en la Comisión de Desarrollo y

Planificación del Territorio, en relación con la aplicación de los índices de referencia de precios de alquiler en zonas tensionadas.

JUSTIFIKAZIOA

Etxebizitzarako eskubidearen aldeko maiatzaren 24ko 12/2023 Legeak eremu tentsionatuaren deklarazioa arautzen du, eta Donostian ia urtebete da hori aplikatzen dela.

Eremu tentsionatuetarako 12/2023 Legeak jasotako neurrien artean, honako hau ezartzen da:

- Edukitzaile handiek alokairu-prezioen erreferentzia-indizeak aplikatu behar dituzte kontratu berrietan.
- Era berean, edukitzaile txikiek erreferentzia-indizeak aplikatu behar dituzte.
- Edukitzaile txiki batek alokairu-kontratua berritzen ez badu eta beste errentari batekin beste bat sinatzen badu, azken kontratuaren errenta bera aplikatu behar du.

Hau da, eremu tentsionatu deklaratzearen helburua da alokairuen prezioaren igoera mugatzea deklarazio horrek irauten duen bitartean.

Ildo horretan, gogorarazi behar da, Eusko Jaurlaritzaren beraren datuen arabera, 2026an 25.695 kontratu amaituko direla, eta kontratu horiek berritzea erreferentziazko prezioen indizeen mende dagoela, 12/2023 Legearen arabera.

Era berean, ezin ditugu alde batera utzi "gizarte-ezkutua" izenez ezagutzen den dekretua

JUSTIFICACIÓN

Ley 12/2023, de 24 de mayo, por el derecho a la vivienda regula la declaración de zona tensionada que ya se aplica en Donostia desde hace casi un año.

Entre las medidas contempladas en la Ley 12/2023 para las zonas tensionadas se establece que:

- Los grandes tenedores deben aplicar los índices de referencia de precios de alquiler en los nuevos contratos.
- Igualmente, los pequeños tenedores deben aplicar los índices de referencia.
- Cuando un pequeño tenedor no renueva el contrato de alquiler y firme uno nuevo con otra persona inquilina, debe aplicar la misma renta del último contrato.

Es decir, que la declaración de zona tensionada busca limitar el aumento del precio de los alquileres mientras dure esa declaración.

En este sentido, cabe recordar que según datos del propio Gobierno Vasco, en 2026 van a finalizar 25.695 contratos cuya renovación está sujeta a los índices de precios de referencia de acuerdo con la Ley 12/2023.

Asimismo, no podemos olvidar a las personas vulnerables que tienen suspendidos sus

aplikatzearen ondorioz etxegabetzeak etenda dauzkaten pertsona zaurgarriak; izan ere, dekretu hori baliozkotu ezean, etxetik kanporatu litezke, etxebizitza bat eskuratzea herritarrentzat arazo handienetako bat den une batean.

Kaleratzeak Stop plataformak, muga-egunera iritsiko diren kontratuak asko izan daitezkeela eta, udal-taldeei eskatu die Udalak, bere komunikazio-kanalen bidez, lege horretan ezarritako neurrien berri emateko donostiarrei, erreferentziazko prezioen indizeei dagokienez. Era berean, eskatu dute Udalak ikuska dezala ea erreferentziazko indizeak aplikatzen ari diren, iruzur-egoerak saihesteko.

Batzordean interpelatuta, zinegotzi ordezkariak adierazi zuen Udalak sobera zabaldu dituela eremu tentsionatu deklaratzearen ondorioak. Hala ere, hori ez da oztopo, behin erreferentziazko prezioen indizeak ezagututa, herritarrei indize horiei buruzko informazioa emateko bere komunikazio-kanalen bidez, hala nola Udalaren eta Etxegintzaren webgunearen bidez, entitate horrek dagoeneko bai baitu alokairuko etxebizitzei buruzko atal bat.

Era berean, eremu tentsionatuaren deklarazioaren ez-betetzeak ikuskatzeko eta zehatzeko eskumenari dagokionez, adierazi zuen Etxebizitzaren, Lurzoruaren eta Hirigintzaren arloko Presako Neurrien abenduaren 11ko 6/2025 Legeak aldatu egin duela Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legearen 84. artikulua. Aldaketa horrek arau-hauste astuntzat jotzen du bizitegi-merkatu tentsionatu deklaratutako eremu batean, deklaraziotik eratorritako betebehar eta

desahucios por la aplicación del decreto conocido como “escudo social”, y que de no convalidarse podrían ser desalojadas de sus viviendas en un momento en el que acceder a una vivienda es uno de los mayores problemas para la ciudadanía.

Desde la plataforma Stop Desahucios, y ante la posible avalancha de vencimientos de contratos, han solicitado a los grupos municipales que el Ayuntamiento, a través de sus canales de comunicación, informe a la ciudadanía de Donostia sobre las medidas establecidas en la citada Ley en relación con los índices de precios de referencia. Igualmente, solicitan que el Ayuntamiento inspeccione si se están aplicando los índices de referencia para evitar situaciones de fraude.

Interpelada en comisión, la concejala delegada manifestó que el Ayuntamiento ha difundido sobradamente las consecuencias de la declaración de zona tensionada. Sin embargo, eso no es óbice para que una vez que se conocen los índices de precios de referencia, informe a la ciudadanía sobre ese índice a través de sus canales de comunicación, como la página web municipal o de la de Etxegintza que, de hecho, ya cuenta con un apartado para la vivienda en alquiler.

Asimismo, en relación con la competencia de inspección y sanción de los incumplimientos de la declaración de zona tensionada, manifestó que la Ley 6/2025, de 11 de diciembre, de Medidas Urgentes en materia de Vivienda, Suelo y Urbanismo ha modificado el artículo 84 de la Ley 3/2015, de 18 de junio, de Vivienda. Esa modificación califica de infracciones graves el alquiler de una vivienda ubicada en una zona declarada como zona de

neurri espezifikoak urratuz, etxebizitza bat alokatzea.

Horri dagokionez, zinegotzi ordezkariak jakinarazi zuen zerbitzu juridikoak aldaketa hori aztertzen ari direla, merkatu tentsionatuko eremu deklaratzetik eratorritako betebeharrak betetzen direla ikuskatzeaz eta zehatzeaz arduratzen den administrazioa zein den zehazteko.

Hala badagokio, ikuskapen- eta zehapen-lana egitea funtsezkoa da legea betetzen dela bermatzeko eta erreferentziazkoak baino askoz prezio altuagoak aplikatzen jarraitzea saihesteko, deklarazio horren helburua alokairuaren prezioak kontrolatzea baita.

Ikuskapen horrek barne hartu behar ditu udalerrian alokairuko etxebizitzak iragartzen dituzten higiezinen atariak ere, eta Etxebizitzaren Legean ezarritakoarekin bat ez datozen prezioak eskaini: edukitzaile handientzako eta txikientzako erreferentziazko indizeak aplikatzea kontratu berri bat formalizatzean, eta edukitzaile txikiei azken kontratuaren errenta mantentzea. Lan hori Kontsumitzaileen Arretarako Udal Bulegoak egin dezake, baldin eta ikuskatzeko eta kontrolatzeko eskumena Udalarena bada.

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal-gobernuari eskatzen dio, bere komunikazio-kanalen bidez, herritarrei informazioa emateko Donostia bezala tentsionatu deklaratutako udalerrietako alokairuen prezioen erreferentzia-indizeak aplikatzeari buruzko 12/2023 Legean ezarritako neurriez.

mercado residencial tensionado, incumpliendo las obligaciones y medidas específicas derivadas de la declaración.

A ese respecto, la concejala delegada informó de que los servicios jurídicos están analizando la citada modificación para delimitar quién es la administración encargada de la función de inspección y sanción del cumplimiento de las obligaciones derivadas de la declaración de zona de mercado tensionado.

Realizar la labor de inspección y sanción en su caso, es fundamental para poder garantizar el cumplimiento de la Ley e impedir que se sigan aplicando precios muy por encima de los de referencia, dado que el objetivo de esa declaración es la del control de los precios del alquiler.

Esa inspección debe abarcar también los portales inmobiliarios que anuncian viviendas en alquiler en el municipio, ofreciendo precios que no corresponden con lo establecido en la Ley de Vivienda citados anteriormente: aplicación de los indices de referencia para grandes tenedores y a pequeños al formalizar un nuevo contrato, y el mantenimiento de la renta del ultimo contrato a los pequeños tenedores. Esta labor podría realizarse desde la Oficina Municipal de Atención a la Persona Consumidora, en caso de que la competencia de inspección y control sea municipal.

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a informar a la ciudadanía a través de sus canales de comunicación sobre las medidas establecidas en la Ley 12/2023 relativas a la aplicación de los índices

de referencia de precios de los alquileres para los municipios declarados tensionados como Donostia.

2. Donostiako Udalbatzak udal-gobernuari eskatzen dio beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak erabil ditzala, eremu tentsionatu den aldetik, Donostiarako definitutako alokairu-prezioen erreferentzia-indizeak aplikatzen ari direla ikuskatzeko eta, hala badagokio, zehatzeko, baldin eta zerbitzu juridikoei eskatutako txostenak ondorioztatzen badu Udala dela horretarako administrazio eskuduna.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a destinar los medios personales y materiales necesarios para inspeccionar y sancionar, en su caso, que se están aplicando los índices de referencia de precios de los alquileres definidos para Donostia en calidad de zona tensionada, si el informe solicitado a los servicios jurídicos concluye que es el Ayuntamiento la administración competente para ello.

Donostia, 2026ko otsailaren 20a

Arantza Gonzalez Garcia
Elkarrekin Donostia udal-taldeko zinegotzia”.

Donostia, a 20 de febrero de 2026

Arantza González García
Concejala del grupo municipal Elkarrekin Donostia”.

Eztabaida hasita, Arantza Gonzalez Garcia andreak, Borja Corominas Fisas jaunak, Ricardo Burutaran Ferre jaunak eta Nekane Arzallus Iturriza andreak, parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Arantza González García, D. Borja Corominas Fisas, D. Ricardo Burutaran Ferré y D.ª Nekane Arzallus Iturriza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**5. KONTROL MOZIOAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 5:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 23 – (8) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 23 – (8) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN**

**DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 3 – PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 3 – PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.6. Kontrol Mozioa, PP Taldek aurkeztua, txakurren DNAren errolda ezartzeko proposamenari buruzkoa.**

“Talde Popularreko bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikuluaren babesean, KONTROL MOZIO hau aurkezten dio Udalbatzari, txakurren DNA errolda aplikatzeko proposamenari buruzkoa, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Espazio publikoetan elkarrekin bizitzeko, oinarrizko gizalege-arauak bete behar dira, osasungarritasuna, garbitasuna eta auzokideen arteko errespetua bermatzeko. Donostiarrek behin eta berriz aipatzen duten arazoetako bat da bide publikoan, parkeetan eta berdeguneetan txakur-gorotzak daudela. Horrek, eragozpenak eta arazo higieniko-sanitarioak sortzeaz gain, itxura txarra ematen dio hiriari.

Animaliak Babestu eta Edukitzeko Udal Ordenantzan horren inguruko betebeharrak xedatu diren arren, bai eta horren inguruan informazio-kanpainak egin ere, arazoak bere horretan dirau, hein handi batean oso zaila delako arauak betetzen ez dituzten jabeak identifikatzea.

Azken urteotan, udalerri batzuetan txakurren

**II.2.6. Moción de Control, presentada por el Grupo PP, sobre la propuesta de implantación del censo de ADN canino.**

“Borja Corominas Fisas, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, como consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre la propuesta de implantación del censo de ADN canino.

JUSTIFICACIÓN

La convivencia en los espacios públicos exige el cumplimiento de normas básicas de civismo que garanticen la salubridad, la limpieza y el respeto entre vecinos. Uno de los problemas que de forma recurrente trasladan los donostiarras es la presencia de excrementos caninos en la vía pública, parques y zonas verdes, generando molestias, problemas higiénico-sanitarios y un deterioro de la imagen urbana.

A pesar de la existencia de obligaciones recogidas en la Ordenanza Municipal para la Protección y Tenencia de Animales, y de las campañas informativas realizadas, el problema persiste debido, en gran medida, a la dificultad de identificar a los propietarios incumplidores.

En los últimos años, algunos municipios han

identifikazio genetikoko sistemak ezarri dituzte nahitaezko mikrotxiparen tresna osagarri gisa, eta horri esker, animalia bakoitzari lotutako DNA errolda bat sortu dute. Horretarako, baimendutako albaitariek lagin biologiko bat hartzen dute, minik gabeko prozedura baten bidez (normalean ahoko isipu baten bidez). Laginaren bidez lortutako profil genetikoa animalien udal-erregistroari lotutako datu-base batean sartzen da. Bide publikoan gorotzik agertuz gero, udal-zerbitzuek lagin bat har dezakete, eta datu-base horrekin kontrastatu, hori egin duen animalia eta, hala badagokio, haren titularra identifikatzeko.

implantado sistemas de identificación genética canina como herramienta complementaria al microchip obligatorio, permitiendo la creación de un censo de ADN asociado a cada animal. Para ello, personal veterinario autorizado recoge una muestra biológica indolora (habitualmente mediante hisopo bucal). El perfil genético obtenido se incorpora a una base de datos vinculada al registro municipal de animales. En caso de aparición de excrementos en la vía pública, los servicios municipales pueden recoger una muestra y contrastarla con dicha base de datos para identificar al animal responsable y, en su caso, al titular del mismo.

Gainera, Tres Cantos eta Alcalá de Henares udalerrietan garatutako esperientziek erakutsi dute sistema horrek beste arazo batzuei ere aurre egiten laguntzen duela, hala nola:

- identifikatzailea kenduta duten txakurrak abandonatzea edo lapurtzea;
- abandonatu daitezkeen umealdiak identifikatzea;
- erregistratu gabeko animalien hozkadak edo erasoak identifikatzea; eta
- animalien udal-erroldaren kudeaketa hobetzea.

Además, experiencias desarrolladas en municipios como Tres Cantos y Alcalá de Henares han demostrado que este sistema contribuye también a combatir otros problemas como:

- El abandono o robo de perros cuyo chip identificador haya sido extraído;
- La identificación de camadas que puedan ser abandonadas;
- La identificación de mordeduras o ataques de animales sin registrar; y
- Mejorar la gestión del censo municipal de animales.

Hori dela eta, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio azter dezala Animaliak Babestu eta Edukitzeko Udal Ordenantza aldatzearen bideragarritasun tekniko, juridiko eta ekonomikoa, txakurren DNA bidezko

Por estos motivos presentamos la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que estudie la viabilidad técnica, jurídica y económica de modificar la Ordenanza Municipal para la Protección y Tenencia de

identifikazio-sistema bat ezartzeko —nahitaezko mikrotxip-sistemaren tresna osagarri gisa—, eta, era berean, ebalua dezala neurri horrek bide-garbiketa, herritarren bizikidetza eta animalien ongizatea hobetzeko izango lukeen eragina.

Animales, con el objetivo de incorporar la implantación de un sistema de identificación mediante ADN canino como herramienta complementaria al sistema de microchip obligatorio, evaluando asimismo su impacto en la mejora de la limpieza viaria, la convivencia ciudadana y el bienestar animal.

Donostia, 2026ko otsailaren 20a

Borja Corominas Fisas
Alderdi Popularraren udal taldearen bozeramailea”.

En San Sebastián, a 20 de febrero de 2026

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal del Partido Popular”.

Eztabaida hasita, Tomas Pascua Martin jaunak, Victor Lasa Briz jaunak, Iñigo Garcia Villanueva jaunak eta Martin Ibabe Eceiza jaunak, parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Tomás Pascua Martín, D. Victor Lasa Briz, D. Iñigo García Villanueva y D. Martin Ibabe Eceiza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**6. KONTROL MOZIOAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 6:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.9. Kontrol Mozioa, EH Bildu Taldeak aurkeztua, Udalaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planari buruzkoa (2026-29).**

**II.2.9. Moción de Control, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre el V Plan para la Igualdad de Mujeres y hombres del Ayuntamiento (2026-29).**

“EH BILDU udal taldeko zinegotzi Sandra Barrenetxea Diezek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO DONOSTIAKO V. UDAL PLANAri (2026-2029) buruzko KONTROL MOZIO hau aurkezten dio Udalbatzaren Osoko Bilkurari.

JUSTIFIKAZIOA

2025. urte osoan, Donostiako Udalaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana lantzen aritu da Udala maila teknikoan. Plana gauzatzeko epea 2026tik 2029ra bitartekoa da.

2025eko otsailean aurkeztu zuten proiektu horren egoera Berdintasun Kontseiluan, eta adierazi zuten «sormen-talde» batzuk eratu eta Kontseiluan parte hartzen duten emakumeei ere egingo zietela gonbita haietan parte hartzera, kontraste-gunea ez ezik, ekarpenerako gunea ere izan dadin. Kontraste horiek ekainean egitea aurreikusi zen.

Ekaineko Kontseiluan berriro aztertu zen gaia, eta ez zen lehen proposatutakoari buruzko azalpenik eman. Urriaren 2an egindako Kontseiluan Planaren edukiak aurkeztu zituzten, eta urriaren 28a izatea jarri zen ekarpenak posta elektronikoz egiteko azkeneko eguna. Beraz, 2 asteko epea eman zuten ekarpenak egiteko, azken dokumentua azaroaren 19an aurkeztuko zutela-eta. Egun hartan egindako Kontseiluan, elkarte batek eta gure talde politikoak egindako ekarpenak aztertu ziren, eta bileran ziren batzuek ere adierazi zituzten gauza batzuk eta ekarpentzat hartzeko eskatu zuten.

Kontseilu hartan, Ane Oyarbide zinegotziak azaldu zuen ekarpenetan jasotako zer elementu

“Sandra Barrenetxea Díez, concejala del Grupo Municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL para ser tratada en Pleno, sobre el V PLAN PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES DEL AYUNTAMIENTO DE DONOSTIA (2026-29)

JUSTIFICACIÓN

Durante todo el año 2025 este Ayuntamiento ha estado trabajando a nivel técnico el V Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres del Ayuntamiento de Donostia, cuyo plazo de ejecución se establece entre 2026 y 2029.

En febrero de 2025 se presenta en el Consejo de Igualdad la situación de este proyecto, afirmando que se van a realizar “grupos creativos” a los cuales se invitará a las mujeres participantes en el Consejo a fin de que no sea solo un espacio de contraste, sino también un espacio para la aportación, previéndose estos contrastes en el mes de junio.

En el Consejo del mes de junio se vuelve a tratar el tema, sin dar explicaciones respecto a lo propuesto anteriormente. En el Consejo celebrado el 2 de octubre se presentan los contenidos del Plan y se establece el 28 de octubre para realizar aportaciones por email, dando pues, un plazo de 2 semanas para estas aportaciones, ya que se presentará el documento final el 19 de noviembre. En el Consejo realizado en esa fecha, se tratan las aportaciones realizadas por una asociación y nuestro grupo político y las allí presentes señalan algunas cuestiones sobre las que se solicita se consideren como aportación.

En ese Consejo, la Concejala Ane Oyarbide, explica qué elementos recogidos en las

sartu zen eta zer ez. Batzuk sartzeko arrazoiak eman bazituen ere, beste batzuk ez sartzeko ez; baina, ez zuen gai garrantzitsu batzuk ez integratzeko arrazoiei buruzko irizpide argirik eman, arauetan berariaz jarrita dagoen arren Berdintasunerako Planak nahitaez heldu behar dien gaiak direla gai haietako batzuk. Era berean, ez zen ekarpenen inguruko eztabaidarako eta hausnarketarako aukerarik ere izan; izan ere, bilerak ordubete irauten zuen eta ez zegoen aldez aurretik jakiterik zer ekarpen jaso zen eta zergatik sartu ziren edo ez ziren sartu.

aportaciones se han incorporado y cuáles no, dando razones algunas veces y otras no, sin establecer criterios claros acerca de las razones para no integrar cuestiones que no son menores, puesto que se trata de mandatos normativos explícitos que de forma obligatoria un Plan para la Igualdad debe abordar. Tampoco se da opción al debate ni a la reflexión en torno a las diversas aportaciones, ya que la reunión dura una hora y no hay conocimiento previo ni sobre las aportaciones recibidas ni sobre las razones para incluirlas o no.

Hala, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean Ane Oyarbide zinegotziari galdetu genion gai horren eta Emakunderen txostenaz, planaren edukien gaineko txostena egin behar izaten baitu Emakundek plana onartu baino lehen (hala jartzen du arloko legearen 16.6 artikuluak). Erantzunak berretsi besterik ez zituen egin lehen egindako kritikak; izan ere, Emakundek eskatzen baitio Udalari betetzeko, besteak beste, Berdintasunerako Legearen 16. artikuluak jartzen duena, eta, hala, aurrekontu bat egiteko Planak irauten duen urte guztietarako, eta, betetzeko, orobat, arauetan agindutako beste kontu garrantzitsu batzuk ere; adibidez, plana egiteko oinarri izan duen diagnostikoa zehaztea, kudeaketa-egiturak indartzea eta Emakundek orain dela 8 urte berdintasun-politikek izan behar dituzten egiturez jarri zituen kalitate-estandarrei erantzutea behingoz, oraindik ez baititu betetzen estandar horiek Udal honek.

En la Comisión de Servicios a las personas, interpelamos a la Concejala Oyarbide sobre esta cuestión y sobre el informe emitido por Emakunde, entidad que debe informar sobre los contenidos de los Planes antes de su aprobación, tal y como lo establece el artículo 16.6. La respuesta no hacía más que confirmar las críticas que ya se habían realizado, ya que Emakunde solicita a este Ayuntamiento que cumpla con lo establecido, entre otros, en el artículo 16 de la Ley para la Igualdad y elabore un presupuesto para todos los años que dura el Plan, además de otras cuestiones de calado, que responden también a mandatos normativos, como que especifique el diagnóstico en el que se ha basado, refuerce las estructuras de gestión y responda de una vez a los estándares de calidad que ya estableció Emakunde hace 8 años respecto a las estructuras que deben sostener las políticas para la igualdad y que este Ayuntamiento sigue sin cumplir.

Lehen aipatutako Berdintasun Kontseiluan, gure taldeak eta beste elkarte batzuek, esplizituki kritikatu zuten, Ane Oyarbide ordezkariak emandako argudioak entzun arren, aurrekonturik ez izatea; zinegotzi ordezkariak azaldu baitzuen 2026koa zela aurrekontua, eta ez zuen Plana

En el Consejo de Igualdad mencionado anteriormente, tanto nuestro grupo como otras asociaciones criticaron explícitamente la falta de presupuesto, aún y habiendo escuchado la argumentación de la Delegada Oyarbide, que exponía que el Presupuesto era el de 2026, sin

garatzeko gainerako urteetarako beste aurreikuspen eta konpromisorik aipatu batere. Hori ez ezik, planak duen aurrekontuak ez dio erantzuten ezta Berdintasunerako 2030 Estrategiari ere, urtero %1,5eko aurrekontua izatea jartzen baitu hark xede.

más previsión ni compromiso para el resto de los años de desarrollo del Plan. No solo eso, sino que el Presupuesto que se recoge ni siquiera responde a la Estrategia 2030 para la Igualdad, en la que se establece como meta un presupuesto anual de un 1,5%.

Duela gutxi onartu zuen Gobernu Batzarrak Berdintasunerako V. Plana, Berdintasunerako Kontseiluak eta Osoko Bilkura hau osatzen dugun alderdi politikoek benetako eztabaida edukidun bat izateko aukerarik gabe eta baita akordio batzuk lortu nahi izan gabe ere, aipatutako gabeziez gain, kontraesan batetik abiatzen den plan bati eusteko moduko akordio batzuk; izan ere, 2029ra irautea jartzen badu ere, Gobernu Batzordearen onarpena besterik ez dauka planak, eta ez Osoko Bilkura honena.

El V Plan para la Igualdad fue aprobado recientemente en Junta de Gobierno, sin que el Consejo para la Igualdad y los partidos políticos que constituimos este Pleno tuviéramos opción de dar un debate real y con contenido y por supuesto, sin buscar acuerdos que puedan sostener un Plan que además de las carencias mencionadas, parte de una contradicción de base, ya que, si bien establece su duración hasta el año 2029, solo tiene la aprobación de la Junta de Gobierno y no de este Pleno.

Horiek horrela direla, hauxe da EH Bildu udal taldeak dakarren KONTROL MOZIOA:

1. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Gobernu Taldeari eskatzen dio sartzeko planean Emakundek Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planaz egindako txostenean adierazitako gomendio guztiak.

Donostian, 2026ko otsailaren 20an

Sandra Barrenetxea Diez, EH Bildu udal taldeko zinegotzia ".

Por todo ello, el grupo municipal de EH BILDU, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al equipo de Gobierno a integrar en su totalidad las recomendaciones que hace Emakunde en su informe acerca del V Plan para la igualdad de mujeres y hombres.

Donostian, 2026ko otsailaren 20an

Sandra Barrenetxea Díez
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Eztabaida hasita, Sandra Barrenetxea Diez andreak, Arantza Gonzalez Garcia andreak, Vanessa Velez de Pablos andreak eta Ane Oyarbide Ochoa andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto las señoras D.ª Sandra Barrenetxea Díez, D.ª Arantza González García, D.ª Vanessa Vélez de Pablos y D.ª Ane Oyarbide Ochoa, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 10 – (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 10 – (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

**II.2.10. Kontrol Mozioa, EH Bildu Taldeak aurkeztua, pertsona zaurgarrien etxegabetzeak saihesteko neurriak ezartzeari buruzkoa.**

“EH BILDU udal-taldeko zinegotzi Ricardo Burutaran Ferrék, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikuluaren babesean, pertsona zaurgarriak etxegabetzea saihesteko neurriak hartzeari buruzko KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Udalbatzan eztabaidatzeko, otsailaren 16an Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Kontuan izanik, batetik, etxebizitzaren prezioak etengabe igotzen ari direla eta horrek eragin berezia duela gure hirian, eta, bestetik, gerta litekeela Kongresuak 2/2026 Errege Dekretua (etxegabetzeen kontrako dekretua ere esaten zaiona) ez onartzea eta horrek ziurgabetasuna eta kezka sortzen duela, bai eta dozenaka maizterrentzako arrisku bat ekarri ere, administrazio publiko guztiek, horien artean

**II.2.10. Moción de Control, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre la implementación de medidas para evitar desahucios de personas vulnerables.**

“Ricardo Burutaran Ferré, concejal del Grupo Municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL para su debate en Pleno, sobre implementación de medidas para evitar desahucios de personas vulnerables. La moción de control es consecuencia de la Interpelación sustanciada en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio, el pasado 16 de febrero.

JUSTIFICACIÓN

El incremento constante de los precios de la vivienda con especial incidencia en nuestra ciudad y las incertidumbres y preocupación que genera la posibilidad de que el Real Decreto 2/2026, conocido como Decreto Antidesahucios no sea convalidado por el Congreso con el consiguiente riesgo que ello supone para decenas de personas inquilinas exige a todas las Administraciones Públicas,

Udalak, hainbat neurri eduki behar dituzte aurreikusita, hori azkenean hala gertatzen bada jarduteko.

Hain zuzen, Kaleratzeak Stop plataformak dioenez, 2024an eta 2025ean, etxegabetzeen dekretua indarrean egon den urteetan, Udaleko gizarte-zerbitzuek bizitegi-alternatibarik ez zuten maizterren zaurgarritasunari buruzko txostenak egin zituzten, eta, ondorioz, une horretan indarrean zegoen araudia aplikatuz, etxegabetze horiek bertan behera uztea agintzen zen.

Hala ere, bizitegi-alternatibarik ez duten kolektiboen gaineko ezkutu sozial hori gabe gelditu daitezke familia horiek. Gure ustez, beharrezkoa da Udalak, beste administrazio publiko batzuekin lankidetzan eta koordinatuta, jarduera-protokolo bat adostea.

Alkateari horri buruz galdetu genionean, Hirigintza Sostengagarriko eta Etxebizitzako zinegotzi ordezkariak erantzun zigun esanez ez zutela egokitzat jotzen aztertzea zer eragin izan dezakeen hirian etxegabetzeak eteten dituen araudia indargabetzeak, 2/2026 Errege Dekretua benetan baliozkotzen den ala ez jakin arte. Bestalde, jakinarazi zigun, etxegabetze-prozedurei lotuta, Gizarte Ekintzaren Zuzendaritzak 64 zaurgarritasun–txosten egin dituela.

Familia horiek izugarrizko ziurgabetasuna bizi dute, ez baitakite laster etxegabetuko dituzten ala ez. Horiez gain, zaurgarritasun-arriskuan dauden familiak ere kontuan hartu behar dira. Hori dela eta, administrazioek, Udal honek ere bai, behar bezala aurreikusi behar dute zer bizitegi-erantzun emango dieten zaurgarritasun-

entre las que se encuentra el Ayuntamiento, tener previsto medidas de actuación en el caso de que tal situación terminase por confirmarse.

De hecho, según relatan desde la plataforma Stop Desahucios, durante los años 2024 y 2025 en los que estaba vigente el Decreto Antidesahucios, los servicios sociales del Ayuntamiento emitieron informes de vulnerabilidad de inquilinos, sin alternativa habitacional y, en consecuencia, en aplicación de la normativa en ese momento vigente, se decretaba la suspensión de dichos desahucios.

No obstante, la posible caída de dicho escudo social sobre colectivos sin alternativa habitacional se cierne sobre dichas familias. A nuestro juicio es necesario que por parte del Ayuntamiento y, en colaboración y coordinación con otras Administraciones Públicas, se acuerde un protocolo de actuación.

Interpelado al respecto el Alcalde nos contestó la Delegada de Urbanismo Sostenible y Vivienda que no consideraban oportuno analizar la incidencia que pueda tener en la ciudad la derogación de la normativa que suspende los desahucios hasta saber si efectivamente se convalida o no el Real Decreto 2/2026. Por otra parte, nos informó que el número de informes de vulnerabilidad realizados por el Departamento de Acción Social como consecuencia de procedimientos de desahucios era de 64.

La grave incertidumbre que se cierne sobre estas familias que no saben si serán desahuciadas próximamente de sus viviendas, así como las de otras en riesgo de vulnerabilidad que puedan sumarse a las anteriores exige a todas las Administraciones, incluido la Local, prever adecuadamente la

txostena izanda, beren premien araberako bizitegi-aukera egoki bat ez duten familiei.

respuesta habitacional a dar a las familias que con informe de vulnerabilidad, carecen de alternativa habitacional válida y adecuada a sus necesidades.

Hori dela eta, hauxe da gure KONTROL MOZIOA:

Por todo ello, el concejal que suscribe formula la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1. Hiriko hainbat eta hainbat familia etxegabetzeko berehalako arriskuan egon daitezkeela ikusita, Donostiako Udalbatzak eskatzen du jarduteko protokolo bat aztertu eta onetsi dadila, "gizarte-ezkutua" delakoa bertan behera geratu eta etendako etxegabetzeak berriz abian jartzen badira, bizitegi-alternatibarik ez duten maizter zaurgarriei erantzun bat emateko.

2. Era berean, udal-gobernuari eskatzen zaio jarraipen aktiboa egin dezala zaurgarritasun-egoeran egoteagatik eta bizileku-alternatibarik ez izateagatik etxegabetze-prozesua eten zitzaien 64 familien egoerari, bai eta egoera berean egon daitezkeen beste familia guztienari ere.

1. El Pleno del Ayuntamiento a que a la vista del riesgo inminente en el que se pueden ver inmersas varias decenas de familias donostiarras, estudie y apruebe un protocolo de actuación para el caso de que decaiga el llamado “escudo social” y se retomen los desahucios suspendidos de inquilinos vulnerables sin alternativa habitacional.

2. Asimismo se insta al gobierno municipal a hacer un seguimiento activo sobre la situación de las 64 familias cuyo desahucio fue suspendido por su situación de vulnerabilidad y carencia de alternativa habitacional; y de cuántas otras puedan verse en la misma situación.

Donostia, 2026ko otsailaren 20a

Izpta.: Ricardo Burutaran Ferre
EH BILDU udal taldeko zinegotzia”.

Donostia, a 20 de febrero de 2026

Fdo.: Ricardo Burutaran Ferré,
Concejal del Grupo Municipal EH BILDU”.

Eztabaida hasita, Ricardo Burutaran Ferre jaunak, Arantza Gonzalez Garcia andreak, Vanessa Velez de Pablos andreak eta Nekane Arzallus Iturriza andreak, parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D. Ricardo Burutaran Ferre, D.ª Arantza González García, D.ª Vanessa Velez de Pablos y D.ª Nekane Arzallus Iturriza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 23 – (8) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 3 – PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 23 – (8) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 3 – PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**ETA BILERAK BESTE XEDERIK EZ DUENEZ, LEHENDAKARITZAK, AKTAKO LEHEN ORRIAREN BURUAN ADIERAZITAKO EGUERDIKO HAMABIAK ETA BERROGEITA ZAZPI MINUTUAN AMAITUTZAT JO DU BILERA. ETA NIK, IDAZKARI NAIZEN ALDETIK, BILERAN ESANDAKO GUZTIAREN FEDE EMATEN DUT:**

**Y NO SIENDO OTRO EL OBJETO DE LA SESIÓN, LA PRESIDENCIA LA DECLARA TERMINADA, LEVANTÁNDOSE EL ACTO, SIENDO LAS DOCE HORAS Y CUARENTA Y SIETE MINUTOS DE LA FECHA EXPRESADA EN EL ENCABEZAMIENTO DE LA PRESENTE ACTA, DE TODO LO CUAL, YO, LA SECRETARIA, DOY FE:**

**LEHENDAKARIA: / EL PRESIDENTE:**

**IDAZKARIA: / LA SECRETARIA:**

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

| | |
|---|---|
| **Gai zk. /** Asunto nº | 1 |
| **Mota /** Clase | Akta / Acta |
| **Eguna /** Fecha | 2026/03/26 |
| **Saioa /** Sesión | OHIKOA |

**UDALBATZA** / PLENO

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Berretsia** Ratificado | | **Aho batez** Unanimidad | X | **Aldeko botoak** Votos a favor | |
| **Onartua** Aprobado | X | **Quorum** | | **Aurkako botoak** Votos en contra | |
| **Jakinean** Enterado | | **Gehiengoa** Mayoría | | **Abstentziak** Abstenciones | |

**Oharrak**
Observaciones
.............................................................................
.............................................................................



Nagore Sarasola Otermin